



Usurbilgo Udala

2025/12/18

2025EKO ABENDUAREN 18AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Ez dira bertaratu: Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Usurbilen, 2025eko abenduaren 18an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA:

1.1.- 2025EKO AZAROAREN 27KO AKTA.

Batzarkideek 2025eko azaroaren 27ko akta aho batez onartu dute.

1.2.- 2025EKO ABENDUAREN 5EKO AKTA.



Usurbilgo Udala

2025/12/18

Batzarkideek 2025eko abenduaren 5eko akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2025EKO AZAROAREN 21ETIK ABENDUAREN 12RA (2025/1506-2025/1634).

Alkatetzak 2025eko azaroaren 21etik abenduaren 12ra bitartean (2025/1506-2025/1634) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2026. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA (2025FAZE0002).

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Ikusita

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126.4 eta abenduaren 1eko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 11/2022 Legeak 45. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Kontutan hartuta

- Pertsonal teknikariaren 2025/12/02ko txostena.
- Idazkariaren 2025/12/04ko txostena.

2025eko abenduaren 10ean egindako Antolakuntza batzordean 2026ko Lanpostuen Zerrenda aho batez onartu da, horrela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso, Josune Urkola eta Petri Romero.

Beraz, Antolakuntza batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2026ko Lanpostuen Zerrendari onespina ematea.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

2025/12/18

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguroola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz eta Ivan Iriondo Axpe.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- 2025EKO ETA 2026KO SOLDATA IGOERAK ONARTZEA (2025FOIG0002).

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe dator, beraz, batzarkideek hasteko plenoan tratatzea berretsi dute aho batez.

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Ikusirik

2025eko abenduaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, Ministroen Kontseiluaren erabakiz, Sektore publikoko langileen ordainsarrietan % 2,5eko igoera aplikatzea urtarrilaren 1etik aurrera. Hori guztia, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuan, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituen, onartutakoarekin bat etorriz zen.

Eudelek, 2025eko abenduaren 4ko zirkularrean, egokitzen jo du honako GOMENDIO hau egitea:

Lehenengoa.- 2025. URTEKO ORDAINSARIEN IGOERA ETA NOLA BURUTU

1.- Onartutako legezko % 2,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan barnean direla ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria. Ordainsarien igoera hori homogeneoki egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langileantzinatasunari dagokienez, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2.- Errege Lege Dekretuaren 3.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, EUDELEk gomendatzen du 2025eko ekitaldiari dagozkion zenbatekoak eta atzerapenak 2025eko abenduan ordaintzea.

Bigarrena.- 2026. URTEKO ORDAINSARIEN IGOERA

1.- Onartutako legezko % 1,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, errege lege-dekretu honetan onartutako ordainsarien igoera barne. Ordainsarien igoera hori homogeneoki egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen



Usurbilgo Udala

2025/12/18

kopuruari dagokionez, bai langile-antzinatasunari dagokienez, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2.- Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutako % 0,5 gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2026ko KPIaren bilakaera eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duena hartuko dira kontuan, Errege Lege Dekretuan jasotakoaren arabera, horren ordainketa egin ahal izango den jakiteko.

Bestalde, indarrean dagoen **Usurbigo Udaleko Lan Hitzarmenak** zera arautzen du:

“88. artikulua.- Ordainsarien igoera

1. Erakunde sinatzaileek eros-ahalmenaren mantentzea hartuko dute erreferentzia modura. Horretarako Akordio hau indarrean dagoen bitartean, ezarri behar diren aurrekontu-arauen arabera izango da igoera.

Igoera urte bakoitzeko urtarrileko nominatik aplikatuko da, azken abenduko eta azken aurreko urteko abenduko Gipuzkoako KPI-a kontuan hartuz. KPI hori negatiboa izango balitz, ez da jaitsierarik aplikatuko. Hortik gorako igoerak urtez urte aztertu eta adostuko dira, uneko ekonomia eta legearen arabera.

Edozein kasutan, KPI-aren arabera igoerak beti ere legeak ahalbideratzen baditu eta legeak ahalbideratzen dituen neurrian burutuko dira. Legeak mugak jartzen baditu konpromezua ez da beteko (...)”

2025eko abenduaren 12an Langileen ordezkariekin Negoziaketa Mahaian gai hau landu da.

KONTUTAN HARTURIK

Apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, zera dio 103.bis artikuluan: *“Las Corporaciones locales aprobarán anualmente la masa salarial del personal laboral del sector público local respetando los límites y las condiciones que se establezcan con carácter básico en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado”.*

Estatuko Aurrekontu legeak baimentzen duen portzentaia gehienezkoa da, eta hori ezin izango du gainditu. Dena den, Usurbilgo Lan Hitzarmenak soldata igoera erregulatzen duenean ez ditu funtzionariak eta laboralak ezberdintzen eta zentzu horretan, hitzarmen horretako 4. artikuluan ere hitzarmena langile guztiei aplikagarri izango zaiela adierazten du.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko Legearen Testu Bategina arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 27. artikulua honakoa dio: *«Las retribuciones del personal laboral se determinarán de acuerdo con la legislación laboral, el convenio colectivo que sea aplicable y el contrato de trabajo», respetando en todo caso lo establecido en el art. 21, que se refiere a «los límites fijados anualmente en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el personal».*

Zentzu berean, abenduaren 23ko 31/2022 **Estatuko Aurrekontuen Legearen** 19.8 artikulua zera dio: *“Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los*



Usurbilgo Udala

2025/12/18

fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.” Eta artikulua hau oinarritzkoa dela kontuan izan behar dugu.

Hortaz, Eudelek, 2025eko abenduaren 2an, sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2025eko ekitaldirako eta 2026ko soldata igoerak onartzeari buruz argitaratutako gomendioak kontuan hartuz eta beti ere udaleko kontuhartzaitza sailak Udal Aurrekontuetan dagokion finantzaketa badagoela ziurtatuz gero, teknikari honek proposatzen du 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin; enplegatuen soldata igoera lehenik Negoziazio Mahai nagusian adostea, ondoren Antolakuntza Batzordean diktaminatzea eta azkenik eta Udalbatza-Plenoan onartzea. honako erabaki proposamenarekin:

Aurreko guztia kontuan hartuta, Udalbatzarra honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Eudelek, 2025eko abenduaren 4an egindako gomendioak jarraituz, Usurbilgo Udaleko langileen lansaria igotzea:

- Onartutako legezko % 2,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.
- Onartutako legezko % 1,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

Bigarrena: Akordio honen berri langileen ordezkari, Kontuhartzaitza sailari ematea dagokion ondorioetarako eta Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz eta Ivan Iriondo Axpe.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dago.



Usurbilgo Udala

2025/12/18

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:15etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.